



TOLOSAKO
UDALA

1. Obra egikaritzeko zuzendariaren betebeharrak dira:

A) Eraikuntza-produktuak obran jaso direla egiaztatzea, eta saiakuntza eta proba zehatzak egiteko agintzea.

B) Obraburua izendatzea. Obrako eraikitzailearen ordezkari teknikoa bere gain hartuko du eta, bere titulazio edo esperientziagatik, gaitasun egokia izan beharko du, obraren ezaugarrien eta konplexutasunaren arabera.

C) Proiektua idaztea, indarrean dagoen araudiaren eta kontratuan ezarritakoaren arabera, eta aurkeztea, beharrezkoak diren bisatuekin.

2. Beren kontratu-erantzukizunei kalterik egin gabe, eraikuntza-prozesuan esku hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek eraikinen edo eraikin-zati baten jabeen eta hirugarren eskuratzaileren aurrean erantzungo dute, baldin eta zatitzen badira, eraikinean eragindako kalte material hauen aurrean, adierazitako epeen barruan, obra jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, inolako erresebarik gabe edo horiek zuzentzen direnetik hasita:

A) Bost urtean, bizio edo akatsek eraikinean eragindako kalte materialengatik, baldin eta kalte horiek eragiten badiete zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, karga-hormei edo bestelako egitura-elementuei eta zuzenean arriskuan jartzen badute eraikinaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna.

B) Hamar urtez, bizio edo akatsek eraikinean eragindako kalte materialengatik, baldin eta kalte horiek eragiten badiete zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, karga-hormei edo bestelako egitura-elementuei eta zuzenean arriskuan jartzen badute eraikinaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna.

C) Bost urtean, eraikuntza-elementuen edo instalazioen bizio edo akatsek eraikinean eragindako kalte materialengatik, baldin eta kalte horiek eragiten badute ez betetzea Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 3. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian ezarritako bizigarritasun-baldintzak.

3. Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak, besteak beste, honako agiri hauek jasoko ditu:

A) Aurrekontua, kuantifikatuko dituen segurtasun- eta osasun-azterlana aplikatzeko eta gauzatzeko aurreikusitako gastu guztiak.

B) Memorian definitutako prebentzio-neurriak hobeto definitzeko eta ulertzeko beharrezkoak diren grafikoak eta eskemak garatuko dituzten planoak, beharrezko



TOLOSAKO
UDALA

zehaztapen teknikoak adierazita.

C) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

4. Eraikuntza-obretan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 3. artikulua arabera:

A) Obran enpresa batek baino gehiagok, enpresa batek, langile autonomo batek edo hainbat langile autonomok esku hartzen badute, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo egoera hori egiaztatu bezain laster, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du obra egin bitartean.

B) Obran enpresa batek baino gehiagok, enpresa batek, langile autonomo batek edo hainbat langile autonomok esku hartzen badute, obra-zuzendariak, lanak hasi aurretik edo egoera hori egiaztatu bezain laster, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du obra egin bitartean.

C) Obran enpresa batek baino gehiagok, enpresa batek, langile autonomo batek edo hainbat langile autonomok esku hartzen badute, obra gauzatzeko zuzendariak, lanak hasi aurretik edo egoera hori egiaztatu bezain laster, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du obra egin bitartean.

5. 68/2000 Dekretuaren II. Eranskinaren arabera (hiri-ingurunekeko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak), oinezkoen ibilbideen luzetarako malda honako hau izango da:

A) % 8koa edo hortik beherakoa.

B) % 6 edo txikiagoa.

C) % 10 edo txikiagoa.

6. Urbanizazioak, Bide Publikoak eta Eraikuntzak Eraberritzeko, Handitzeko edo Aldatzeko Obretan Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen aplikazioari buruzko 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinaren arabera:

A) Oro har, eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko III. eranskineko 4.1.1 artikuluan eskatzen den zirkulu librea 1,80 m-ko diametrokoa izan daiteke.

B) Oro har, eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko III. eranskineko 4.1.1 artikuluan eskatzen den zirkulu librea 1,50 m-ko diametrokoa izan daiteke.

C) Oro har, eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko III. eranskineko 4.1.1 artikuluan eskatzen den zirkulu librea 1,40 m-ko diametrokoa izan daiteke.



TOLOSAKO
UDALA

7. Komunikazioko irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretuaren IV. eranskinaren arabera, eta gainazalei atxikitako seinaleztapen-sistemei eta adierazleei dagokienez,

A) Begietan jarriko dira, aurrean ezer jarri gabe, haiengana hurbiltzea eragozteko. Batez besteko altuera 1,50 eta 1,70 m artekoa izango da.

B) Begietan jarriko dira, aurrean ezer jarri gabe, haiengana hurbiltzea eragozteko. Batez besteko altuera 1,20 eta 1,50 m artekoa izango da.

C) Begietan jarriko dira, aurrean ezer jarri gabe, haiengana hurbiltzea eragozteko. Batez besteko altuera 1,00 eta 1,20 m artekoa izango da.

8.- 68/2000 Dekretuan, III. eranskinean, eraikinetako, egoitza-eraikinetako, gurpil-aulkiak edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzako etxebizitzetako, komun eta bainugeletako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoei buruzkoan,

A) komun-ontzira heltzeko, 60 cm-ko zabalerako oztoporik gabeko alboko espazio bat aurreikusiko da.

B) komun-ontzira heltzeko, 80 cm-ko zabalerako oztoporik gabeko alboko espazio bat aurreikusiko da

C) komun-ontzira heltzeko, 90 cm-ko zabalerako oztoporik gabeko alboko espazio bat aurreikusiko da

9. EKTren I. zatiko I. Eranskinaren arabera, Oinarrizko Proiektuak EKTren Oinarrizko Dokumentu honen justifikazioa jaso behar du:

A) Egiturazko Segurtasunarena

B) Suteetarako segurtasunarena

C) Zarataren aurkako babesarena

10. EKTren I. zatiko II. Eranskinaren arabera, eraikuntza-obrek jarraipen-dokumentazio bat izango dute, gutxienez honako hauek osatua:

A) Aginduen eta Asistentzien Liburua; segurtasun eta osasun arloko gorabeheren liburua; eta obra-zuzendariak behar bezala baimendutako proiektua, eranskinak eta aldaketak.

B) Aginduen eta Asistentzien Liburua; segurtasun eta osasun arloko gorabeheren



TOLOSAKO
UDALA

liburua; obra-lizentzia, lantokia irekitzea eta, hala badagokio, bestelako administrazio-baimenak; eta obraren azken ziurtagiria.

C) Aginduen eta Asistentzien Liburua; segurtasun- eta osasun-arloko gorabeheren liburua; obra-zuzendariak behar bezala baimendutako proiektua, eranskinak eta aldaketak; obra-lizentzia, lantokia irekitzea eta, hala badagokio, bestelako administrazio-baimenak; eta obraren amaierako ziurtagiria.

11. Etxebizitza-erabilerako eraikinetan, sute-sektore guztien azalera eraikiak ez du honako hau baino handiagoa izan behar:

A) 2.000 m²

B) 1.500 m²

C) 2.500 m²

12. Solairuko irteera baterainoko ebakuazio-ibilbideen luzera ez da 25 m-tik gorakoa izango, honako kasu hauetan izan ezik:

A) 35 m, aparkaleku-erabileran

B) 50 m, aparkaleku-erabileran

C) 35 m, etxebizitza-erabileran

13.- Lurzoruen irristagarritasuna "Rd" irristadurarekiko erresistentzia-balioaren arabera sailkatzen da, erortzeko arriskuaren aurreko segurtasunari buruzko 1.1 taulan, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren SUA/ESI 1 atalaren arabera. 1.2 Taulak, lurzoruek kokapenaren arabera, gutxienez, zein motatakoak izan behar duten adierazten du. Beraz, ez da zuzena:

A) Barrualdeko eremu lehorretan, % 6tik beherako malda duten azalerak 1. motakoak izatea eskatzen zaiela.

B) Barrualdeko eremu lehorretan, % 6ko edo gehiagoko malda duten azalerak eta eskailerak 2. mailakoak izatea eskatzen zaiela.

C) Barrualdeko eremu hezeetan, hala nola kanpoaldeko espaziotik (ez erabilera mugatukoak) eraikinetarako sarreretan, terraza estalietan, aldageletan, komunetan, sukaldeetan eta abarretan, % 6tik beherako malda duten azaleretan, 3. motakoak izatea eskatzen zaiela.



TOLOSAKO
UDALA

14.- SUA/ESI 2an, elementu hauskorrekin (beirekin) talka egiteko arriskuaren aurrean, inpaktu arriskuko eremu gisa identifikatzen da.

- A) Horma-atal finkoetan, lurzoruaren mailaren eta 0,90m-ko altueraren arteko eremua.
- B) Horma-atal finkoetan, lurzoruaren mailaren eta 1,10 m-ko altueraren arteko eremua.
- C) Horma-atal finkoetan, lurzoruaren mailaren eta 1,20 m-ko altueraren arteko eremua.

15. Kalitatea Kontrolatzeko Planean honako hau zehaztuko da:

- A) Produktuak, materialak, ekipoak eta sistemak obran hartzeko irizpideak, erantsi beharreko dokumentazioa adierazita, EKTren 7.2.1 eta 7.2.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- B) Obraren egikaritze-kontrola ezartzeko irizpideak, EKTren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- C) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

16. Materialen, ekipoen eta sistemen harrera arautzen duen 7. artikulua arabera, kontratatutako Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiek emaitzen kopia bat emango diote.

- A) Obraren zuzendaritzari eta obrak egikaritzeko zuzendaritzari.
- B) Obraren zuzendaritzari bakarrik.
- C) Sustatzaileari.

17. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua aplikatuko zaie 2. artikuluan definitutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinei, baina salbuespen dira honako hauek:

- A) Obra berean, beste obra batean edo zaharberritze-, egokitze- edo betetze-jarduera batean berrerabilitako gai arriskutsuek kutsatu ez dituzten lurrak eta harriak, betiere berrerabiltzeko xedea modu frogagarrian egiazta badaiteke.
- B) Eraikin bat bezalako ondasun higiezin bat birgaitzearen ondoriozko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak.



TOLOSAKO
UDALA

C) Eraikin bat bezalako ondasun higiezin bat eraistean sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak.

18. Udalek fidantza bat eratzeko eskatuko dute obra handiko eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, ematen dituzten hirigintza-lizentziak lortzeko baldintza gisa; fidantza hori honela eratuko da:

- A) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuaren % 150 jarrita.
- B) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuaren % 100 jarrita.
- C) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuaren % 120 jarrita.

19. Uztailaren 24ko 117/2018 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoak, 11. artikuluan ezartzen du udalari aurkeztu beharko zaiola eraikinaren lehen ikuskapen teknikoa:

- A) Eraikinak berrogeita hamar urte bete eta hurrengo urtearen barruan.
- B) Eraikinak berrogeita hamar urte bete baino lehen.
- C) Eraikinak berrogeita hamar urte betetzen dituen urtearen ondorengo sei hilabeteen barruan.

20. Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Erregistroak informazio hau jasoko du eraikinaren ikuskapen tekniko bakoitzerako:

- A) Eraikinaren posta-helbidea, katastroko erreferentzia eta UTM koordinatuak (Eusko Jaurlaritzaren geo-lokalizatzailaren arabera).
- B) Eraikina egin zen eguna, eta egun horren konstantziarik ez balego, eraikina egin zen urtea gutxi gorabehera, eta birgaitze integralaren data.
- C) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

21. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 10. artikulua arabera, lurzoruaren sailkapentzat hartuko da lurzoruaren eremu zehatzak hirigintzako egiturako antolamenduaren bidez lurzoru-mota batzuen lege-araubideari lotzea. Lurzoru-mota horiek hauek dira:

- A) hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizaezina.



TOLOSAKO
UDALA

B) hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta landa-eremukoa.

C) hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina.

22. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59. artikulua arabera, hauek dira egiturazko antolamenduko planak:

A) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

B) Plan bereziak.

C) Plan partzialak.

23. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 198. artikulua arabera (urbanizazio-obrak udalak jasotzeari buruzkoa), erantzun hauetako zein ez da zuzena?

A) Urbanizazio-obren egikaritzea amaitu ondoren, eragile urbanizatzailleak edo horien sustatzaileak udalari jakinaraziko dio, gutxienez hogeit hamar egun lehenago, obrak noiz, non eta zer ordutan entregatu edo eskura jarriko diren.

B) Urbanizazioaren harrera formalizatuko da esku hartzen duten alderdiek sinatutako aktaren bidez. Akta hori formalki eta banaka jakinaraziko zaie hirigintza-egikaritzearen ondoriozko orubeen jabeen.

C) Urbanizazio-obren egikaritzea amaitu ondoren, eragile urbanizatzailleak edo horien sustatzaileak udalari jakinaraziko dio, gutxienez hamar egun lehenago, obrak noiz, non eta zer ordutan entregatu edo eskura jarriko diren.

24. Hirigintza-antolamenduaren xede diren lurzorua, lurpea eta hegala eraldatzeko eta erabiltzeko jarduketek legezkontasun-kontrola bete beharko dute, honako hauen bidez:

A) Hirigintza-ikuskapena eta egikaritze-aginduak.

B) Baimena eta lizentzia, eta aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena behar izatea.

C) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.



25.- 10/2021 Legearen arabera, ingurumen-ebaluazioari eta erantzukizunari dagokienez,

A) Ingurumen-ebaluazioetarako beharrezkoak diren dokumentu teknikoak egileak izango dira dokumentuaren edukiaren eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule, Administrazioetik modu frogagarrian jasotako datuei dagokienez izan ezik.

B) Ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen proiektuen sustatzailea, baldin eta behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsoneri ingurumen-ebaluazioa egiteko agintzen badiete, proiektuaren edukiaren eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, Administrazioetik modu frogagarrian jasotako datuei dagokienez izan ezik.

C) Ingurumen-ebaluazioari buruzko dokumentu teknikoak egiten dituzten egileak eta sustatzailea izango dira dokumentu horien edukiaren eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule solidarioak, Administrazioetik modu frogagarrian jasotako datuei dagokienez izan ezik.

26.- 10/2021 Legearen I.D eranskinen arabera, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak eta instalazioak dira:

A) Azaleko tratamenduak edo bernizatze edo pistolaz pintatzeko eragiketak egiten dituzten tailerretara eta antzekoetara.

B) Biltegitratze-, merkataritza- eta esposizio-jarduerak edo instalazioak, hondakin toxiko, arriskutsu edo sukoi gisa katalogatutako produktuak eta materialak dituztenak, kopuru hauetan: 500 kg-tik gora bizitegitarako hiri-lurzoruan dauden instalazioetan, eta 1.000 kg-tik gora gainerako lurzoruetan.

C) 100m²-tik gorako azalera eraikia duten ibilgailuen garajeak.

27.- 10/2021 Legearen I.E eranskinaren arabera, ez da zuzena, ondoko aukeretako baten kasuan, jarduera edo instalazio bat aldatzeko funtsezkotzat hartzea.

A) Instalazioak produktu-unitateetan ekoizteko duen ahalmena % 25 baino gehiago handitzea.

B) Uraren, lehengaien edo energiaren kontsumoan baimendutako kantitateak % 50 baino gehiago handitzea.

C) Baimenean agertzen den edozein kutsatzaile atmosferikoren edo isurketa-foku



TOLOSAKO
UDALA

bakoitzean sortutako isuri atmosferiko guztien masa-isurketa % 25 baino gehiago handitzea, bai eta kutsatzaile berriak kopuru esanguratsuetan sartzeari ere.

28.- Industria-establezimenduetan suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren I. eranskinaren arabera, C motako industria-establezimendutzat hartuko da:

A) Industria-establezimenduak beste establezimendu batzuk dituen eraikin bat okupatzen du partzialki, establezimendu horiek industria-erabilerakoak edo beste erabilera batzuetakoak izan litezke.

B) Industria-establezimenduak eraikin bat edo batzuk hartzen ditu, beste establezimendu batzuetatik hurbilen dagoen eraikinetik hiru metro baino gehiagora daudenak. Distantzia horrek salgai erregairik edo sutea zabal dezaketean bitarteko elementurik gabe egon beharko du.

C) Industria-establezimenduak beste eraikin bati edo batzuei atxikita dagoen eraikin bat okupatzen du erabat, edo beste eraikin batetik edo batzuetatik hiru metro edo gutxiagora dagoen beste eraikin bat, beste establezimendu horiek industria-erabilerakoak edo beste erabilera batzuetakoak izan litezke.

29.- Industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren II. eranskinaren arabera, zer da estalki arina?

A) Berezko pisua 100 kg/m² baino handiagoa ez duten estalki guztiak.

B) Berezko pisua 200 kg/m² baino handiagoa ez duten estalki guztiak.

C) Berezko pisua 150 kg/m² baino handiagoa ez duen estalki oro.

30.- Industria-establezimenduetan suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren III. eranskinaren arabera, suteak detektatzeko sistema automatikoak instalatuko dira industria-establezimenduetako sute-sektoreetan, baldin eta sektore horietan biltegitratzeaz bestelako ekoizpen-, muntaketa-, eraldaketa- eta konponketa-jarduerak egiten badira, honako kasu hauetan:

A) A motako eraikinetan kokatuta daude eta guztira 200 m² edo gehiagoko azalera eraikia dute.

B) B motako eraikinetan kokatuta daude eta eraikitako azalera, guztira, 300 m² edo gehiagokoa da.



TOLOSAKO
UDALA

C) A motako eraikinetan kokatuta daude eta eraikitako azalera, guztira, 300 m² edo gehiagokoa da.

31.- Aldizkako ikuskapenen 22.1 artikulua araber, 513/2017 Errege Dekretuaren V. Kapituluko, suteen aurkako babes-instalazioei dagokienez, egiaztatutako kontrol-erakunde bati gutxienez hamar urtean behin, ikuskatzea eskatzekoaz, eta 22. artikulua horren 2. apartatua adierazitako salbuespenen araber, zein ez da zuzena salbuespenetatik?

A) Etxebizitzarako bizitegi-erabilera

B) Administrazio-erabilera, 2.000 m²-tik beherako azalera eraikia duena.

C) 100 m²-tik beherako azalera eraikia duen aparkalekua

32.- Laugarren xedapen iragankorrean, zerbitzuan jarri zirenetik hamar urte edo gehiago dituzten instalazioak ikuskatzeari buruzkoan, indarrean dagoen erregelamenduaren sarreran, zein da erantzun zuzena?. Gehieneko zein epetan egin beharko da lehendabiziko ikuskatzea?

A) 20 urte edo gehiagoko antzinatasuna duten instalazioak: 6 hilabeteko epean.

B) 15 urtetik gorako eta 20 urtetik beherako antzinatasuna duten instalazioak: bi urteko epean.

C) 10 urtetik gorako eta 15 urtetik beherako antzinatasuna duten instalazioak: 2 urte eta 6 hilabeteko epean.

33.- Suteen aurkako babes-instalazioen erregelamendua onartzen duen maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren I. eranskinean, sute-aho ekipatuen sistemei dagokienez, adierazten da BIEak euskarri zurrun baten gainean muntatu beharko direla, eskuz irekitzeko ahokoa eta balbula eta armairua irekitzeko sistema, halakorik badago, kokatuta egon daitezten.

A) gehienez, lurzoruaren mailatik 1,20 m-ra.

B) gehienez, lurzoruaren mailatik 1,50 m-ra.

C) gehienez, lurzoruaren mailatik 1,60m-ra.



34.- Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa onartzen duen abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua ez zaie aplikatuko ondoko aukera bateko instalazioei,

- A) Instalazio berriei, horien aldaketei eta handitzei.
- B) Indarrean jarri aurretik zeuden instalazioei, garrantzizko aldaketak, konponketa garrantzitsuak eta handitzeak egiten bazaizkie.
- C) Indarrean jarri aurretik zeuden instalazioei, Industria Sailak hala eskatzen badu ere.

35.- Behe-tentsioko 842/2002 Erregelamenduaren arabera,

- A) Hartunea sustatzailearen erantzukizuna izango da, eta azken ikuskapena eta egiaztapena bere gain hartuko ditu.
- B) Hartunea enpresa hornitzailearen erantzukizuna izango da, eta azken ikuskapena eta egiaztapena bere gain hartuko ditu.
- C) Hartunea dagokion udaleko teknikarien erantzukizuna izango da, eta haiek hartuko dute beren gain azken ikuskapena eta egiaztapena.

36.- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea ez da aplikatuko zenbait puntuetan. Zein puntu ez da zerrenda horretan azaltzen?

- A) Lapurretengatik, ekintza bandalikoengatik, lurrikarengatik, suteengatik, uholdeengatik edo gainerako hondamendi naturalengatik larrialdiko mantentze-lanak egiten dituzten enpresak.
- B) Babes zibileko eta auzitegi-peritazioko zerbitzu operatiboak, arrisku larriko, hondamendiko eta zorigaitz publikoko kasuetan.
- C) Guardia Zibilaren Indar Armatuak eta jarduera militarrik.

37.- 31/1995 Legearen 7. 1 artikuluari dagokionez, non lan-arloan eskumena duten herri-administrazioen jarduketak deskribatzen diren.

- A) Lege honetan xedatutakoa betez, lan-arloan eskumena duten herri-administrazioek beren aplikazio-eremuan sartzen diren subjektuek laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dutela zaindu, kontrolatu eta prebentzioa sustatzeko eginkizunak beteko dituzte, eta araudi horren inguruan egin ditzaketen hutsegiteez ohartaraziko dute.



B) Lege honetan xedatutakoa betez, lan-arloan eskumena duten herri-administrazioek beren aplikazio-eremuan sartzen diren subjektuek laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dutela zaindu eta kontrolatzeko, eta prebentzioa sustatzeko, aholkularitza teknikoa emateko eta aholkularitza teknikoa emateko eginkizunak beteko dituzte, eta araudi horren aurkako arau-hausteei isunak jarriko dizkiete.

C) Lege honetan xedatutakoa betez, lan-arloan eskumena duten herri-administrazioek honako eginkizun hauek beteko dituzte: prebentzioa sustatzea, aholkularitza teknikoa ematea, eta haren aplikazio-eremuan sartzen diren subjektuek laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dutela zaintzea eta kontrolatzea.

38.- Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan, erantzun bat ez da guztiz zuzena, Eraikinen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriari buruzko Dekretua honako hauei aplikatzen zaiela esandakoan:

A) Eraikin berriak

B) Lehendik dauden eraikinak aldatu, eraberritu edo birgaitzea, baldin eta 1000m²-tik gorako azalera erabilgarria badute eta honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- Itxituren % 25 baino gehiago berritzea.
- Garatutako jardueraren erabilera edo intentsitatea aldatzea, kalifikazio energetikoaren mailan eragina izan dezan.

C) Lehendik dauden eraikinak, edo horien zati bat, turismo-ostatu gisa erabiltzen direnak, betiere 5 urtean behin berritzen den Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiririk ez badute.

39.- Tolosako HAPOko Arau Orokorraren 12. Artikuluaren arabera, erabilera xehatutako azpizona hauek ezartzen dira bizitegi-lursailerako:

A) "a.10. Hirigune historikoko bizitegi-lursaila" eta "a.20. Eraikuntza irekiko bizitegi-lursaila".

B) "a.10. Hirigune historikoko bizitegi-lursaila" eta "a.20. Eraikuntza irekiko bizitegi-lursaila" eta "a.30. Garapen txikiko eraikuntzako bizitegi-lursaila"

C) "a.1. Hirigune historikoko bizitegi-lursaila" eta "a.2. Eraikuntza irekiko bizitegi-lursaila" eta "a.3. Garapen txikiko eraikuntzako bizitegi-lursaila"



TOLOSAKO
UDALA

40.- Tolosako Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzetako Etxebizitzaren dimentsioa, Konposizioa eta gutxieneko programari buruzko 37. Artikuluaren arabera, logelei buruz honako hau ezartzen da:

- A) Nolanahi ere, etxebizitza orok gutxienez 10,00m²-ko azalera erabilgarria duen logela bat izango du.
- B) Nolanahi ere, etxebizitza orok gutxienez 15,00m²-ko azalera erabilgarria duen logela bat izango du.
- C) Nolanahi ere, etxebizitza orok gutxienez 12,00m²-ko azalera erabilgarria duen logela bat izango du.

ORDEZKOAK

41. Etxebizitza-erabilerako eraikinetan, 200 m²-ko azalera eraikia duten trastelekuak honela sailkatzen dira:

- A) Arrisku berezi baxuko lokalak eta eremuak.
- B) Erdi-mailako arrisku bereziko lokalak eta eremuak.
- C) Arrisku berezi handiko lokalak eta eremuak

42. Hezetasunetik babesteko HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, hormaren eta fatxadaren arteko elkarguneak,

A) Horma barrualdetik iragazgaizten denean, fatxadaren erauzketetan, iragazgaiztea hormaren gainean luzatu behar da, bere lodiera osoan, kanpoko lurzorua mailatik 12 cm baino gehiagora, hormaren paramentuan zehar gutxienez 17 cm beherantz luzatu behar den hesi iragazgaitzaren material bera indartzeko banda baten gainean. Hesi iragazgaitzaren gainean, gutxienez 2 cm-ko lodierako erregulazio-morterozko geruza bat jarri behar da.

B) Horma barrualdetik iragazgaizten denean, fatxadaren erauzketetan, iragazgaiztea hormaren gainean luzatu behar da, bere lodiera osoan, kanpoko lurzorua mailatik 15 cm-ra baino gehiagora, hormaren paramentuan zehar gutxienez 20 cm-ra luzatu behar den erabilitako hesi iragazgaitzaren material bera indartzeko banda baten gainean. Hesi iragazgaitzaren gainean, gutxienez 2 cm-ko lodierako erregulazio-morterozko geruza bat jarri behar da.



C) Horma barrualdetik iragazgaizten denean, fatxadaren erauzketetan, iragazgaiztea hormaren gainean luzatu behar da, bere lodiera osoan, kanpoko lurzoruaren mailatik 17cm baino gehiagora, erabilitako hesi iragazgaitzaren material bera indartzeko banda baten gainean, zeinak beherantz luzatu behar baitu 22cm, hormaren paramentuan zehar gutxienez. Hesi iragazgaitzaren gainean, gutxienez 2 cm-ko lodierako erregulazio-morterozko geruza bat jarri behar da.

43.- Zarataren aurkako babesa HR oinarrizko dokumentuan, esparru babestuetan, airetiko zarataren aurkako isolamendu akustikoaren muga-balioak, zehazki, instalazio-esparruetan eta jarduera-esparruetan sortutako zarataren aurkako babesa, honako hau izango da:

A) Aireko zarataren aurkako isolamendu akustikoa, DnT, A, babestutako esparru baten eta instalazio-esparru baten artean edo harekin bertikalki edo horizontalki mugakide den jarduera-esparru baten artean, ez da 30 DbA baino txikiagoa izango.

B) Aireko zarataren aurkako isolamendu akustikoa, DnT, A, babestutako esparru baten eta instalazio-esparru baten artean edo harekin bertikalki edo horizontalki mugakide den jarduera-esparru baten artean, ez da 33 DbA baino txikiagoa izango.

C) Aireko zarataren aurkako isolamendu akustikoa, DnT, A, babestutako esparru baten eta instalazio-esparru baten artean edo harekin bertikalki edo horizontalki mugakide den jarduera-esparru baten artean, ez da 55 DbA baino txikiagoa izango.

44.- 68/2000 Dekretuaren IV. eranskinen 7. artikuluan, komunikazio-arazoak dituzten turismo-ostatu egokituei dagokienez,

A) Turismo-ostatuetan, hamar plazatik edo zatikitik batean, komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak modu autonomoan moldatzeko beharrezkoak diren laguntza teknikoak izango dira.

B) Turismo-ostatuetan, hogeitaz plazatik edo zatikitik batean, komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak modu autonomoan moldatzeko beharrezkoak diren laguntza teknikoak izango dira.

C) Turismo-ostatuetan, hogeita hamar plaza edo zatikitik batean, komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak modu autonomoan moldatzeko beharrezkoak diren laguntza teknikoak izango dira.



TOLOSAKO
UDALA

45.- Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria, 25/2019 Dekretuaren arabera,

- A) Gutxienez, 235/2013 Errege Dekretuan ezarritako edukia bilduko du.
- B) 234/2013 Errege Dekretuan ezarritako edukia bilduko du.
- C) Gutxienez 234/2013 Errege Dekretuan ezarritako edukia bilduko du.